

2026ko UZTAILA

BERMEON ZER?

Uztailaren 1etik 3ra
Jazzber

Uztailak 10
Gorefest

Uztailak 21
**Baztarreko
jaiak**

Uztailak 22
Madalenak

 **BERMEOKO
UDALA**

BERMEOKO UDALAREN OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETAKO INSTITUTUAREKIN LANKIDETZAN DIHARDUTEN ENPRESEI ESKERRAK

Enpresari eta enpresa laguntzaile horiek:


Bermeoko Udalak eta OLHUI Oinarrizko Lanbide Heziketako Udal Institutuko irakasleen taldeak eskerrik beroenak eman nahi dizkizuegu, gure ikasleei praktikak zuen enpresetan egiteko aukera emateagatik. Zuen lankidetzaren funtsezkoa da gure ikasleen garapen akademiko eta profesionalerako.

Praktiketan zehar, gure ikasleek esperientzia duten profesionalekin ikasteko, trebetasun berriak eskuratzeko eta ezagutza teorikoak ingurune erreal batean aplikatzeko aukera izan dute. Zuen lanak, ikasle bakoitzaren garapen indibidualean ez ezik, gure hezkuntza komunitatea sendotzen ere laguntzen du.

Beste behin ere, eskerrik asko zuen enpresetako ateari irekitzeagatik eta belaunaldi berrien prestakuntzan parte aktibo izateagatik.

Etorkizunean zuen lankidetzaren izaten jarraitzea espero dugu.

Adeitasunez, jaso agur bat.



MEKANIKA ARLOKO ENPRESAK:

Luberri Motor Sport (Bermeo)
Eurorepar Esparru berria (Bermeo)
Vulcanizados Gorra (Gernika)
Eskibel Anaiak S.L. Auto Tailerrak (Mundaka)
Garay Tailerrak (Bermeo)
Larrauri C.B. Tailerrak (Bermeo)
Sagasta SCANIA Tailerrak (Iurreta)
Murgua Auto tailerrak (Bermeo)

METAL ARLOKO ENPRESAK eta ERAKUNDEAK

Montajes Izarra (Bermeo)
Calderería Villa (Gernika)
Kelan - Ondoan (Gernika)
Astobieta Burdingintza (Mundaka)
Busturiko Udala

OSTALARITZAKO ENPRESAK:

Egoitz Alai egoitza (Bermeo)
Eneperi Jatetxea (Bakio)
Kasino Jatetxea (Bermeo)
Akelarre Jatetxea (Bermeo)
BBK Urdaibai Zentroa ASKORA (Busturia)
Leku -Kofradia Berria- (Bermeo)
Zornotzako Batzokia (Zornotza)
Leku Berri (Zornotza)
Adrian Jatetxe Kafetegia (Portugaletxe)
Alboka Taberna (Gernika)

01 Eguaztena
Eguena
02 Barikua
Bermeoko
03 Kafe Antzokian
20:30ean

BERMEOKO XXVIII. JAZZALDIA

JAZZBER

Uztailak 1, eguaztena: Itxaso Quartet *Gaztelugatxe*

Uztailak 2, eguena: Frame


Uztailak 3, barikua: Saúl Andreu Quartet

Doan

Antolatzailea: Bermeoko Udala eta Jizzjazz kultur taldea

Laguntzailea: Oizmendi Telebista

Bizkaiko Foru Alndundiak babestutako ekintza



04 Zapatua
Burujabetasun
zelaitik
09:00etan



Talan
18:00-00:00

Bermeoko
Kafe Antzokian
00:00etik
aurrera

KIROLA

SERRATS ALDAPA XTREM BIKE MARATHON

Bike luzea: 61 kilometroko eta 2.000 metro positiboko ibilbidea

Bike laburra: 41 kilometroko eta 1.325 metro desnibel positiboko ibilbidea

Aspanovas - Minbizia duten haur eta nerabeen gurasoen Bizkaiko elkarteak babestuko dute izen-emateekin eskuratutako diruaren zati batekin

Antolatzaileak: Bermeoko Udala eta Matxitxako T.K.T.

MUSIKA

OLATU FEST

Disko-Tekno

Doan

Antolatzailea: Infinity Club

MUSIKA

OLATU FEST AFTER-PARTY

Sarrerak: www.bermeokokafeantzokia.com

Antolatzailea: Infinity Club

05 Domeka
Artza frontoian

KIROLA

UDAKO EMAKUME MASTER CUP

Emakumeen eskupilota txapelketa

Antolatzailea: Bermeoko Udala

BERMEOKO XXVIII. JAZZALDIA
2026

JAZZBER



Uztailaren 1etik 3ra

UZTAILAK 1
asteazkena

Itxaso 4tet

UZTAILAK 2
osteguna

Frame

UZTAILAK 3
ostirala

**Saul Andreu
Quartet**

Bermeoko Kafe Antzokian. 20:30ean

ANTOLATZAIK:



Jizzjazz^{KT}

LAGUNTZALEA:

OIZMENDI
TELEBISTA

DABESLEA:



05 Domeka
Areneko
Kiroldegiko
igerilekuan
eta Aritzatxu
hondartzan
Goizez

BUSTI ZAITEZ ESKLEROSI ANIZKOITZAREN AURKA

Antolatzailea: *Esklerosi anizkoitzaren
aurkako Fundazioa*



Goiko plazatik
12:30ean

KALEJIRA CORO MAIKA

Ibilbidea: Goiko plaza, Lamera eta Portuzarra

Antolatzailea: *Coro Maika*

07 Martitzena
Artza frontoian
10:00-11:00

KIROLA ATEAK ZABALIK, ZESTA PUNTA

Zesta eskolan izena eman nahi duzu? Probatu nahi duzu?
Ateak zabalik izango ditugu interesa daukateneztat

Antolatzailea: *Bermeoko Zesta Eskola*



10 Barikua
Arrantzaleen
Museoan
09:30etik
aurrera

UDAKO IKASTAROA

'EKONOMIA KRITIKOA MARTXAN IV: KAPITALISMOA MUNDUKO ITSASOETATIK EUSKAL PORTUETARA'

Uda Ikastaro honek kapitalismo globalaren eta itsas munduaren arteko lotura sakona aztertzen du, portuak, logistika eta itsas ekosistemak ulertzeko ikuspegi kritiko eta interdiziplinarra eskainiz. Bermeoko Arrantzale Museoan egingo da, euskal itsas kulturaren bihotzean, eta honek ikaskuntza-esperientzia berritzaile eta esanguratsua ahalbidetzen du. Euskal kostaldeko portuen rol ekonomiko, sozial eta ekologikoa munduko fluxu material eta energetikoen testuinguru zabalagoan kokatuko da, trantsizio ekologikoaren erronkei eta itsas kapitalismoaren etorkizunari begira. Bermeon erroldatutakoentzat matrikula doan
Informazio guztia: www.uik.eus

Antolatzailea: *UIK, Bermeoko Udala, Mugarik Gabeko Ekonomilariak*



10 Barikua
Nestor
Basterretxea
aretoa
20:00etan

GOREFEST FANTASIA ETA BELDURREZKO ZINEMALDIA

Film laburren emanaldia:

- 1- Amira (Javier Yañez Sanz)
 - 2- Ahora Vuelvo (Lucas Paulino & Gabe Ibañez)
 - 3- Tenéis Que Verlo (Nacho Solana)
 - 4- Culpable (Ariana Andrade Castro)
 - 5- Azpian (Danel Garay & Laura Barquin)
 - 6- Killjote (Ángel Villahermosa)
 - 7- 893 Km. (Rubén Guindo Nova)
 - 8- El Revisor (Jandro)
 - 9- La Elegida (Sergio Morcillo)
 - 10- Historia De Un Chico Triste (Carlos Blázquez)
 - 11- Te Debo Una (Santi Capuz & Diego Jiménez)
 - 12- Killergotchi (Carlos Cobos)
 - 13- Tragedium (Gastón Haag)
- Sarrera: 6 €

Ostean. Deabru Beltzak, 'Les Tambours De Feu'
Lameran

Antolatzaileak: Spookypheria Productions eta Bermeoko Udala



Bermeoko
Kafe Antzokiko
terrazan
20:00etan

MUSIKA JON FRESKO ETA IKASLEAK

Doan
Antolatzailea: Bermeoko Kafe Antzokia

11 Zapatua
Artza frontoian
21:00etan

DANTZA ALKARTASUNA DANTZA TALDEKO URTEKO EMANALDIA

Alkartasuna Dantza Taldearen 50. urteurreneko ospakizunak. Nagusien ekitaldia, gonbidatu bereziekin

Antolatzailea: Alkartasuna Dantza Taldea
Laguntzailea: Bermeoko Udala



13 Astelehena
Talan
16:00-19:00

UDAKO LIBURUTEGIA Gaur hasi eta abuztuaren 8ra arte zabalik *Antolatzailea: Bermeoko Udala*

14 Martitzena
Artza frontoian
10:00-11:00

KIROLA ATEAK ZABALIK, ZESTA PUNTA Zesta eskolan izena eman nahi duzu? Probatu nahi duzu? Ateak zabalik izango ditugu interesa daukatenentzat *Antolatzailea: Bermeoko Zesta Eskola*



15 Eguaztena
Goiko plazan
20:00etan



KALE ANTZERKIA

JM BRUTAL- La Pez antzerki taldea

Sinopsia: 1943ko ekainean Joxe Mari, Getariako izozkigilea, Bigarren Mundu Gerra 11 egunez gelditzeko gai izan zen. Erabili zituen arma bakarrak bere sorbeta izoztuak eta Kantauri itsasoa baino handiagoko inozentzia izan ziren. Horrena da istorio hau, inozentziaren istorioa, amets egiten, jolasten, asmatzen eta behar diren gerrak gelditzen jarraitzeko modua bilatzearena. Izozi-furgoneta batekin ibiliko gara herrietan zehar, Jose Marik egin zuen bezala, mundu hau, auzoa, plaza, esperimentaziorako, jolaserako eta ospakizunerako leku bihurtzeko borrokatu ziren pertsonen arima eramaten saiatuko gara.

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**

Laguntzailea: **Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saila**

14 Martitzena
Eguaztena
15 Arrantzaileen
Museoan
08:45 - 19:30



UDAKO IKASTAROA

'OLATUAREN ENBATEAN: EMAKUMEAK ETA ITSASOA XX.MENDEAN'

Olatuaren enbatean. Emakumeak eta Itsasoa XX. mendean da Uda Ikastaro honen izenburua, eta, oro har, itsasoko lanetan emakumeek duten zereginari buruzko hausnarketa sakona egiteko mahai bat sortzea du jomuga. Izen-ematea: www.uik.eus

Antolatzailea: **UIK**

16 Eguena
Gaztelugatxe
Zentroan
19:00etan

HITZALDIA

BERRIKUNTZA ETA PARTE-HARTZEA UDAL POLITIKAN

'Teknologia eta herritarrekiko berrikuntza demokratikoa'. Hizlaria: Asier Amezaga, KOMUNIKATIK enpresako burua eta decidim.org plataformako eragilea

'Bermeoko Udala: politika publikoetan herritarren berbak sartzen direnean'. Hizlaria: Miren Gabantxo-Uriagereka, Bermeoko Berrikuntza, Gobernu Irekia eta Herritarren Arretarako zinegotzia

Antolatzailea: **Guzan Herri Plataforma**

BISITA GIDATUAK GAZTELUGATXEKO SAN JUANERA

UZTAILAREN 4TIK ABUZTUAREN 28RA

Bisita honetan, bermeotarren sinesmen, erritu eta ohituren bidez, bisitariak Gaztelugatxeko San Juanen nortasuna hobeto ezagutu ahal izango du, eta baseliza ere bisitatuko du, Gaztelugatxeko San Juan Bermeoko zati eta esentzia baita. Aldi berean, Gaztelugatxeko San Juaneko ingurumen-berezitasunak ezagutuko ditu. Ingurune babestu hori guztion artean zaindu behar dugu, eta, zerbitzu honen bidez, Gaztelugatxeko San Juaneko esperientzia bultzatu gura dugu, ikuspegi ekoturistiko batetik.

🕒 **Prezioa:** orokorra 10 € / 6-16 urte bitartekoak 5 €
6 urtetik beherakoak 1 €

🕒 **Orduak:** 09:30 eta 11:30

🚌 **Irteera:** Lamerako autobus geltokia

📄 **Erreserbak egiteko:** www.bizibermeo.eus

📍 **TOPAGUNEA :** Lamera parkea (Bizkaibus geltokia)

GAZTELUGATXE ZENTROA

Areilza Kalea

Zentro hau Gaztelugatxeko Monumentu Naturalaren atea izatea da helburu, eta, horretarako, bertako baliabide naturalak eta kulturalak eta identitate-balioak egongo dira ikusgai.

Martitzenetik zapatara bitartean: 10:00-15:00 / 16:00-18:00

Domeka eta jaiegunetan: 10:00-14:00

Astelehenetan itxita

Sarrera: Doan

Tel: 94 617 91 77

Posta elektronikoa: gaztelugatxe@bermeo.eus



GAZTELUGATXE ZENTROA

NATURA-MONUMENTUA




Udako eskaintza turistikoa: www.bizibermeo.eus
Informazio gehiago Bermeoko Turismo Bulegoan:
94 617 91 54 / turismoa@bermeo.eus

BERMEOKO
UDALA

Financiado por
la Unión Europea
NextGenerationEU

16 Eguena
Barikua
17 Zapatua
18



MAÑU AUZOKO JAIK

Uztailak 16, eguena. Karmen eguna

Txupinazoa

11:30. Meza nagusia

13:00. Umeen jolasak

18:00. Umeentzako gaztelu puzgarria

18:00. Meza

19:30. Herri kirolak (Sustabiz, aizkora, harri-jasotzea, trontza, ingude jasotzea (Egun osoan trikitalariak)

Uztailak 17, barikua. Karmen bigarrena

20:00. Bakailaoa nahi duenarentzat (trikitalariak)

21:00. Zaldi probak erakustaldia

Uztailak 18, zapatua.

18:00. VIII .Tortilla txapelketaren izen-ematea

19:00. DJ Bogma ruma

20:00. Tortillen aurkezpena

20:30. VIII .Tortilla txapelketako sari-banaketa

1. saria: 80 €, txapela eta otzara

2. saria: 60 € eta otzara

3. saria: 40 € eta otzara

Ondoren, zozketa eta jaien amaiera.

Antolatzailea: Mañu auzoko Jai Batzordea

Laguntzailea: Bermeoko Udala

17 Barikua
Arrantzaleen
Museoan
18:00etan

HITZALDIA

'ELKANOREN HERIOTZAREN V. URTEURRENA'

Juan Sebastian Elkanoren testamentua eta bere garaiko testuinguru historikoa

Hizlaria: Sabino Laucirica Villalabeitia

Sarrera: Asier Romero Andonegui

Antolatzailea: Galerna taldea

Barikua
Bermeoko
Kafe Antzokiko
goiko aldean
20:30ean

MUSIKA

KONTZERTUAK

Ras + Sonsof decay + Urbandgrind

Antolatzailea: Bermeoko Kafe Antzokia



18 Zapatua
Artza frontoian
20:00etan

KIROLA

V. BERMEO HIRIA INPESCA PILOTA FESTIBALA 2026

Antolatzailea: Artza Pilota Elkarte

21 Martitzena
Artza frontoian
10:00-11:00

KIROLA

ATEAK ZABALIK, ZESTA PUNTA

Zesta eskolan izena eman nahi duzu? Probatu nahi duzu?

Ateak zabalik izango ditugu interesa daukatentzat

Antolatzailea: Bermeoko Zesta Eskola



21 Martitzena

JAIAK

MADALEN BEZPERA: BAZTARRE KALEKO JAIAK

10:00. Txupinazoa eta txokolatea (ekarri bakoitzak bere edalontzia)

11:00. Umeentzako ikuskizuna: DOUBLE BILL-Two Much Circus
Ostean. Umeentzako jolasak

19:00. Bigarren txupina eta Kankinkabara txistu taldearen kalejira

Ondoren. Kanta kanta lorue taldearekin kalejira

Bitartean. Chris eta James, folk irlandarra

21:00. Kontzertua

Antolatzaileak: Baztarreko katuek eta Bermeoko Udala

Laguntzailea: Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saila



Goiko plazatik
20:00etan

KALEJIRA

KANTA KANTA LORUE

Goiko plazan hasi eta Baztarrera joango gara, bertako auzotarrekin eta herritarrekin Baztarre kantuz betetzeko. Ondoren, Portuzarra eta Lamera zeharkatuko ditugu

Kantuzalea bazara, deitu zure lagunak eta etorri arratsalde pasa desberdin eta alai bat pasatzera

Antolatzaileak: Kanta kanta lorue

22 Eguaztena

Bermeoko
Kafe Antzokian
00:00etik
aurrera

MUSIKA

DJ GABANNA

Sarrerak: www.bermeokokafeantzokia.com

Antolatzailea: Bermeoko Kafe Antzokia

SATEVI (24 ORDU, 51 HIZKUNTZA) _____ 900.840.111

AHOLKULARITZA: Biktima, senide, eta profesionalentzat. Doakoa, ez da fakturan agertzen

SEXU-INDARKERIAREN BIKTIMEI
ARRETA OSOA (24 ORDU) _____ 900.840.977

GIZARTE ZERBITZUAK, ABOKATUA, PSIKOLOGOA _____ 946.179.160

- Informazioa eskatzeak ez zaitu beste pausorik ematera behartzen
- Behar duzun edozertarako deitu

INDARKERIA MATXISTARI AURRE
EGITEA GUZTION ARDURA DA



22 Eguaztena

JAIAK

MADALEN EGUNA

Goizean: Kalejira Kankinkabara Txistu Taldearekin Alde Zaharrean 11:45. Udalbatza Goiko plazan batuko da eta, *Alkate Soinua* entzun ostean, porturantz abiatuko da Kankinkabara Txistu Taldearekin kalejiran. Txistulariek *Madalen zortzikoa* joko dute

12:00. Itsasontzietara igo, Izarora joateko Ondoren. Ikurrina jaso Izaron eta gero teila jaurti

12:30etik 15:00etara. TABERNA IBILTARIA Bermeoko kaleetan

13:30. Elantxobera heldu eta Alkartasuna Dantza Taldekoek ohorezko aureskua egingo diete agintariei (Bermeo, Elantxobe eta Mundakako alkateei) Elantxobeko plazan, Kankinkabara Txistu Taldearekin

18:00. Elantxobetik irten Mundakara joateko

19:30. Bermeora heldu eta Udalbatza Goiko plazarantz igoko da Betijai fanfarrearekin banderak altxatu eta auresku eta zabaletakoak egiteko

Ondoren. Betijai fanfarrearekin jaitsiera San Migeleko eskaileretaraino

Antolatzailea: Bermeoko Udala

Etorri Udalbatzagaz Madalen egunean!

- Zozketan parte hartzeko uztailaren 1etik 10era arte (14:00etara arte) izena eman behar da Bermeoko Udalaren egoitza elektronikoaren bitartez www.bermeo.eus edo Berhaz bulegoan (Ertzilla kalea 6-8).

Ordutegia: astelehenetik barikura 08:00-14:30

- Izena emateko 18 urte izan eta Bermeon erroldatuta egon behar da.

- Banaka edo bikoteka eman daiteke izena.

- Aurreko urteetan joan direnek ezin izango dute parte hartu.

Zozketa uztailaren 14an egingo da eta zerrenda udalaren webgunean argitaratuko da uztailaren 15ean (www.bermeo.eus)



24 Barikua
Bermeoko
Kafe Antzokiko
goiko aldean
20:30ean

MUSIKA

KONTZERTUAK

Lie Detectors + Los Retumbes

Antolatzailea: Bermeoko Kafe Antzokia

25 Zapateria
Goiko plazan
09:00- 20:00

AZOKA

MERKATU TXIKIA: BIGARREN ESKUKO AZOKATXOA

Birziklatu, berrerabili, aldatu, oparitu... Irteera eta bizia eman sasoi batean erositako gauzei.

Antolatzaileak: Bermeoko Udala eta Hartz Nagusije auzo alkathea

25 *Lameran*
Egun osoan

JAIA
SENEGALGO EGUNA

Senegalgo bazkari tipikoa, musika, dantzak eta Senegalgo borroka

Antolatzailea: NDA WI Senegal elkarte

Laguntzailea: Bermeoko Udala



27 *Astelehena*
Gaztelugatxe
Zentroan
12:00etan

HITZALDIA
TOKIKO EKONOMIA GARATZEKO ESTRATEGIAK

Bases para una estrategia de desarrollo local'. Hizlaria: Edurne Magro, Orkestra Institutuko ikertzailea, DEUSTUko Unibertsitatea 'Bermeo eta inguruko ekonomien garapenerako emandako azken pausuak'. Hizlaria: Maite Caruezo Ugalde, Bermeoko Garapen Ekonomikoa, Turismoa eta Gazteriarako zinegotzia

Antolatzaileak: Guzan Herri Plataforma

29 *Eguaztena*
Goiko plazan
20:00etan

KALE ANTZERKIA

'AZKENA ETA BAGOAZ', Trapu Zaharra Antzerki Taldea

Sinopsia: Kale Antzerkiko aktore batek ordu txikietan Areto Antzokian zortea probatzea erabakitzen du.

Bere helburua lortzeko, antzerki klasikoko aktore batekin elkartuko da, eta obra berri bat muntatuko du: Bost ordu Mario gabe.

Dirua biltzeko, bere aurreko konpainiarekin lan egin zuen plazak zeharkatuko ditu.

Antolatzailea: Bermeoko Udala

Laguntzailea: Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

31 *Barikua*
Lameran
11:00-14:00
17:00-21:00

EKITALDIA
LIBURU AZOKAREN INAUGURAZIOA

Azoka abuztuaren 9ra arte egongo da

Antolatzailea: Euskadiko Liburu Ganbara

Laguntzailea: Bermeoko Udala



UDAKO LIBURUTEGIA

Udako Liburutegia Talan

Uztailaren 13tik abuztuaren 8ra

Astelehenetik zapatara:

Astelehenetan: 16:00-19:00

Martitzenetik barikura: 11:00-14:30 / 16:00-19:00

Zapatuetan: 11:00-14:30

Zapatuetan umeentzako tailerrak (5 urtetik aurrera):

- Eguzki-estanzak
- Animalia-mosaikoak hostoekin eta hainbat materialekin
- Arrainak ehundurekin
- Haize-errota

Tailerretan izen-ematea Udako liburutegia zabaltzean egingo da, Talako Udako Liburutegian (plaza mugatuak).



GIZ

BIDAIATEKA

Mundu osoko gidak zure esku udako bidaiak eta oporrak prestatzeko!
Bidaia gidan 15 eguneko doako mailegua. Eta, gainera: bidaietako aldizkariak, ostatuak, kanpinak, gazteentzako nazioarteko txartelak: aterpekide txartelak, ISIC, ITIC...

INFO + www.gizbermeo.blogspot.com



AISIALDIKO BEGIRALE IKASTAROA

Eusko Jaurlaritzak homologatutako titulua

Noiz? 2026ko urritik 2027ko maiatzera arte (12 asteburu)

Non? Bermeoko Gizarte eta Kultura Etxean

Ordutegia: Zapatuetan (10:00-18:30)

Baldintzak: 18 urte izatea edo 2027an betetzea, DBHko titulazioa eta euskaraz jakitea.

Izen-ematea: GIZen, plaza kopurua bete arte. Plaza kopuru mugatua

INFO + eta izen-ematea www.gizbermeo.blogspot.com 688 819 950

(WhatsApp zenbakia) - 946179158 - giz@bermeo.euss



UDAKO BERBALAGUN

Uztailaren 7an hasiko da Udako Berbalagun

Lameran

18:30ean

Astero elkartuko da taldea uztailean eta abuztuan

Infoa: 607 609 580



KZ GUNEA



AURREZ AURREKO IKASTAROAK

Uztailaren 1etik 9ra: 11:00-13:00. "Smarthponak eta tabletak. Zure Android gailua erabiltzen ikasi" (Euskaraz). 14 ordu.

Uztailaren 10tik 14ra: 11:00-13:00. "WhatsApp. Bat-bateko mezularitza zure smarthphonean" (euskaraz). 6 ordu.

IT TXARTELAK ATERATZEKO AZTERKETEN DATAK

Uztailaren 2an: 09:00-11:00

Uztailaren 8an: 09:00-11:00

Zubiaur tar Kepa 26-28 . 1. solairuan
(udal-azokan)

Tel.: 944033325. www.kzguna.net

tutor.bermeo@kzguna.net

ERAKUSKETAK

Arrantzaleen Museoan



'OLATUAREN ENBATEAN. EMAKUMEAK ETA ITSASOA XX. MENDEAN', ALDI BATERAKO ERAKUSKETA

Zalantza barik, ezin da gure herriko historia hurbila eraiki emakumeak lan-munduan ez ezik, familian ere izan duen funtsezko papera kontuan hartu barik, rol horrek Bermeo eraikitzea eta garatzea errazten duelako.

94 688 11 71

arrantzaleenmuseoa@bizkaia.eus

Martitzenetik zapatara: 10:00 – 19:00

Domeka eta jaiegunak: 10:30 – 14:30

Astelehenak itxita

Uztaila- Abuztua - Iraila

BISITA BEREZIAK DOMEKETAN:

"Bermeo eraiki zuten gizon eta emakumeak"

ORDUTEGIA: 12:00

AZALPENA: Bermeo nola garatu zen hobeto ulertzeko, emakumeen begirada falta zitzaigun.

Etorri udako domeketan gure bisita gidatura eta deskubritu emakumeek gure historia hurbilean izan duten rol garrantzitsua; kostaldeko gizonen lanarekin batera, gure herria eraikitzeke eta garatzeko aukera eman du.

Etorri domekaz eta ezagutu kostaldeko historia osoa.

Hizkuntza: Elebitan

Informazioa eta erreserbak: 94 688 11 71

arrantzaleenmuseoa@bizkaia.eus

Prezioa: Museoaren sarrera prezioaren barne

Domeketan



Berhaz Bulegoan



ITSAS PALETA

Benito Barrueta arte elkarteko kide batzuek hartzen dute parte; itsasoaren inguruko koadro batzuk aurkeztu dituzte. Margolan eta argazki batzuen bidez, gertuko eta urrutiko itsas irudi batzuk errepresentatu dituzte.

Bulegoko ordutegia:

Astelehenetik barikura: 08:00-14:30

Apirilera bitartean

Lameran

ARTE EDERRETAKO MUSEOAREN ERAKUSKETA

Uztailaren 27tik abuztuaren 3ra

Gizarte eta Kultura Etxean

JAIETAKO KARTEL FINALISTAK AUKERATZEA

Botoa emateko aukera egongo da uztailaren 1etik 10era

Info+: www.bermeo.eus



Abuztuan:

- Euskal liburu eta disko azoka
- Nazioarteko XLI. Musika Astea
- Nazioarte´ko Folklore jaialdia
- Galerna Eguna
- San Juan Degoilatu Eguna

Jarri hemen zure publizitatea

Prezioa: 250 €

94 617 91 57

kultura@bermeo.eus

www.bermeo.eus

